

BERRIGARA

111. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, ekainak 11

**HERRIAREN
ORDENAZIOA
PLENOAN
AZTERTUKO
DA
ASTELEHENEAN**

**JUAN
MARTIN
ELEXPURU
ALPEEN
ITZALPEAN**


KIROLAK

**OREGI II ETA
ORUESAGASTI
DEBA ARROKO
PELOTA
TXAPELDUNAK**



**Abstentzio
altua**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte-ekintza

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA


Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA

**EAJ-PNVk eskerrak eman
nahi dizkie berarengan
konfidantza jarri duten
herritarrei eta aurrerantzean
ere tinko eta gogor lanean
jarraituko duela hitz ematen
du.**

 **EAJ
PNV**

BERRIGARA asteakaria
Tfnoa, eta Faxa: 76 03 97 Errotalde
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea, Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.
Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereziabar.

Maketazioa:
E. Azkarate eta E. Mendibil.
Publizitatea eta harpidetak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:
Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkorobereziabar, J. M. Elexpuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Alzela, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.
Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA


Tirada: 3.300 ale.
Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK**AZTERKETAK**

Egun hauetan herri-
ko ikasle gehienak az-
terketetan murgilduta
dabiltza. Batxilergo
Institutoan esaterako,
UBIko ikasleek beren
klaseak amaitu dituzte
dagoneneko, baina
bertan dabiltzan 145
ikasleetatik 78k selek-
tibitatea izango dute
ekainaren 17 eta 18an.
BBBkoek berriz, ekai-
naren 23, 24 eta 28an
egingo dituzte sufi-
zientziako azterketak.

Lanbide Eskolan,
berriz, aste honetan
izan dira azterketak,
hurrengoan errekupe-
raketak eta ekainaren
21, 22 eta 23an ebalua-
keta. Azkenik, Mariaren



Lagundiko REM (36
ikasle) eta Lanbide
Heziketakako ikasleek
(99) ere aste honetan
izan dituzte esaminak
eta datorren astean e-
rrekupe ratzeko
aukerak, horrenbestez
ikasturtea bukatutzat
emanez.

**ESAN
DUTE**

"Nondik nora ibili
nintzen kontatzeaz
gain, irakurketa
indartzen duten
pasadizuak, ipuinak
eta leiendak bildu
ditut. Bestalde, ez
dira mapa geografiko
edo orografiko hutsak
liburu honetan aurki
daitezkeenak. Bada
Italiako iparraldeko
eta inguruetakoko
nahasketa
linguistikokoaren berri
ematen duen mapa,
muga geografikoak
eta hizkuntzarenak
bat ez datozela
erakusten duena"

J.M. ELEXPURU
Idazlea
EGUNKARIA

**Herriko ikasleak azterketetan
murgilduta hilabete osoan****ITURRI ONETIK****Aurrekontuak, ekain amaieran**


Bergarako Udaleko aurrekontuak ekainaren 28ko
Plenoan aztertuko dira. Azken plenoetan oposizio-
alderdiek euren kezkak agertu dituzte, baina
aurrekontuak dagoeneko alderdi guztiei bidali
zaizkie. Orain 15 eguneko epea izango dute berauek
aztertzeko eta, hilaren 28an alderdi bakoitzak bere
iritzia azaltzeko aukera izango du. Gastu nagusiak
nora bideratuko diren jakin ez arren, badirudi,
orokorrean, aurrekontuak murriztu egingo direla.

"Kronika eta gida,
egilearen ikuspegi
pertsonala eta
egilearen barruko
pentsamendu eta
sentimenduen
agerpena dira
liburuaren osagarriak"

X. MENDIGUREN
Elkarreko editorea
EGUNKARIA



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA**elektragarritza**

✓ *Motoren bobinaketa*
✓ *Era guztietako instalakuntzak*
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



**CARIÑO, HE
AGRANDADO AL NIÑO**
Larunbata: 17.00 eta 19.30.
Igandea: 17.00, 19.30 eta
22.15.
Astelehena: 19.30



MALCOLM X
Ostirala: 22.30
Larunbata: 22.30.



TOTO EL HEROE
Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Lehenengo txikitu, orain haunditu, *Wayne Szalinski* zientifikoak (**Rick Moranis**) trastadak egiten jarraitzen du. Berriz ere umorearen bidetik, **Randal Kleiser**en (*Grease*) filmek lehen zatiaren arrakasta aprobetxatu du.

▼▼ **Spike Leek** Estatu Batuetako beltzen lider sutsuaren biografia egin nahi izan du. 3 ordu terdi behar izan ditu. **Denzel Washington** erreparto buruan, oskarretarako 3 nominazio izan zituen.

▼▼ **Jaco Van Dormael**en filme honek sekulako arrakasta lortu zuen 1991n, Europako 4 *Felix* sari eta filme atzerritar onenaren *Cesara* eskuratuz. **Michel Bouquet** eta **Mireille Perriere**-kin, Thomasen bizitza kontatzen zaigu jaiotzatik bere heriotzara arte.

Erakusketak

▼ **Bergara Hiria Argazki Lehiaketaren** erakusketa Kultur Etxeko 2. pisuan igandera arte, ekainak 13.

▼ **Simon Arrieta zeramiko taldearen** lanak ere Kultur Etxeko erakusgelan ikus daitezke igandera arte. Goizez 12etatik ordubietara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

▼ **Benita Gallastegiren Euskal Herriko paisajeak** izenburuko margo erakusketa Nahikari tabernan.

Farmaziak

▼ **Larunbata 12:**

Camacho.

▼ **Igandea 13:**

Camacho.

▼ **Astelehena 14:**

Puy.

▼ **Asteartea 15:**

Guallar.

▼ **Asteazkena 16:**

Estella/Corcuera (Arrasaten gauzez).

▼ **Osteguna 17:**

Mozos/Irizar.

▼ **Ostirala 18:**

Camacho/Ruiz.

Ogia

▼ **Igandea 13:** Ogizun.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

Deiak

▼ Denontzako Kirol Jaia:

Datorren larunbatean, hilak 19, arratsaldeko 3retatik aurrera Agorrosinen. Partaideak: Aspace, Aransgui, Once, Gurea tailerrak, Gautena, etab.

▼ Mendia berez garbia:

Pol-Pol Mendizale taldeak dei egiten du larunbatean, hilak 12, Irukuru-tzeta eta Pol-Pol ingurua garbitzeko egingo den irteeran parte hartzeko. Goizeko 10etan Pol-Pol aurretik egingo da irteera.

Kirolak

▼ Futbito:

- OZ4-Toki-Eder (kopako final laurdenak). **Larunbatean** 12etan.
- Ogizun-Eusebio II (kopako final laurdenak). **Larunbatean** 13etan.
- Os Jardineiros-Madura (kopako final aurrekoa). **Igandean** 11etan Kiroldegian.
- Larunbateko irabazleen arteko final aurrekoa 12etan.

▼ Txirrindularitza:

- LVI. San Antonio Saria igandean 10.15etan San Antonion.

▼ Pelota:

- Pala txapelketako final aurre-

Aukeran

▼▼ Elosuko Otaba jaiak.

Larunbatean, 5etan, txokolata-da, 22.30etan bertso jaialdia Lizaso, Gorrotxategi, Egaña, Sarasua, Euskitze eta Telleriarekin eta ondoren Segurola txiste kontalaria eta Elorza anaiekin erromeria. Igandean, meza 11etan, pelota finalak, 17.30etan ardi txakur eta ardi mozte lehiaketak eta gauzez erromeria Elorza anaiekin. Astelehenean, meza 12etan, auzo bazkaria eta jolasak.



koak Osintxuko pelotalekuan: Lizarralde-Garmendia/Iñarra-Zangitu eta Gallastegi-Alberdi/Azkarate anaiak. Goizeko 11etatik aurrera.

▼ Saskibaloia:

• Bergara K.E.ko saskibalo sailak dei egiten die 1978-79an jaiotako eta saskibaloian jokatu nahi duten mutilak datorren larunbatean, hilak 19, goizeko 10 t'erdietan Kiroldegian egingo den entrenamenduan parte hartzeko.

▼ Eskubaloia:

• Bergara-Gure Auzune (senior gizonak). Larunbatean 6etan Kiroldegian. Igoera ligako azken partidua.

5

PROFESIONALAK

- Soroa III.a-Alberdi III.a/Arteaga-Andueza VI.a.
- Koka-Astarloa/Lejarreta-Azkarate.
- Gabilondo-Buenetxea/Badiola II.a-Galardi.

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Frontoian.

Mujika
Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



LASA
JATETXEA

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

Garratza eta gozoa

Urtero bezala joan zen larunbatean, ekainak 5, nazioarteko ingurugiroaren eguna ospatu zen. Egun hau, ingurugiroari buruzko politika aldatetaren abiapuntu bezala ulertu nahi izan dugu.

Gure herrian ere, arazo ekologikoak baditugula adierazi nahi izan dugu, eta hauei konponbideak bilatzeko geure lan eta zeregin guztiak, administrazioa behar bezala inplikatzearen ildotik joan gara. Aurten ere udalak, herriko zenbait talderen laguntzarekin, ekitaldi batzuk egin ditu. Gure taldeak ere ekintza hauek antolatzeko lanetan parte hartu izan du, zenbait proposamen eginez. Haurtariko proposamen bat mahai gainean onartzeke gelditu denez, egun aipagarri honetan egitea pentsatu dugu. Limoi eta laranja sariak deritzon ekintza honek, herriko zenbait erakunde sarituko ditu. Bata inguruarekiko eduki duen jarrera garratzagatik eta bestea gozoagatik.

"Parte hartzaile" guztien artean eta ondo baino hobeto aztertu ondoren, honako irabazle hauek aukeratzea erabaki dugu:

Limoi saria: Udaleko Kultura Batzordeari, Pentekoste jaietan zezenketen arduradun, laguntzaile eta antolatzzaile papera betetzeagatik, eta "kulturraren" izenean bultzatzeagatik.

Laranja sariak: Bitor Zulaikari, debatar honek ingurugiroaren defentsan eginiko lanagatik; Zezenganako Erres-

peturako batzordeari; Udaleko Gobernu batzordeari, paper birziklatua erabiltzeko erabakia hartzeagatik; Udaleko Ongizate Batzordeari, ingurugiroaren Nazioarteko Egunean zenbait ekintza antolatzeagatik.

Eguzki

Abertzaleak bat eginik

Pasa dira hauteskundeak, ikusi dugu zer erresultatu eman duten eta gauza bat dago argi eta garbi, nererzat behintzat, partidu abertzaleek atzera egin dutela eta batere partidismorik gabe (zeren ez dut). Ikusten da konberjentziaruntz egin behar dugula, beste hitz batzuekin bada ordua euskal fronte bat egiteko, mezklatu gabe baina bateratuta joan beharko ginatete, edota... gu ez al gara inortxo ere?, ez al dugu hitzik?, non geratzen da gure kultura?, besteek agindu behar al dute?

Denon jakina da gu betik elkarren kontra ibili garela, baliteke orain aukera edukitzea lehengo bideak uzteko eta bide berri bat denok bateratuta egiteko eta bide hortatik baliteke posible izatea gure nahiak betetzea. Badakit oso urruti daudela ikuspuntuak, partidu bakoitzak du bere iritzia eta askotan oso urrutikoa, baina ez al ditu denak ikutzen zirkunstantzia honek?. Nik uste dut baietz, horegatik bateratu behar dugu abertzaletzat geure burua daukagun denok.

Guillermo Azkarate

Manuri eskerronez

Maiatzaren 29an, Eibarko Ipuruan, Bergarako bigarren futbol taldeak bere mailako kopa lortu zuen. Astebete lehenago, Agorrosinen mailaz igotzeko partidua irabazi zuen.

Bergarako herriarentzat guztiz pozgarri izan diren bi lorpen hauek, Bergarako bertako gaztez osatutako taldeak bereganatu ditu. Kirol lorpen hauek beti ere onerako baldin badira, are gehiago kontutan izanik hainbat ordu luze-zen dedikazioz izan dela eta sekula txakur txikirik kobratu gabe. Guzti hau ez da kasualitatea izan, ezta zorte hutsez ere, taldearen atzean zuen onena eskaintzen saiatu den pertsona izan ez balitz. Zer esanik ez Manu Diaz entrenatzaileari buruz ari garela.


Manuk inork uste ez zuen kirol arrakasta lortu du, baina, beharbada, ez da hori garrantzitsuena izan. Kirol emaitza horien ostean, Manuk gure herriko lagun talde bat animatzen eta suspertzen jakin izan du eta baita futbol maila ona egiteko bidean jarri ere. Hamabostean behin Agorrosinera hurbildu izan garenok futbol honetaz disfrutatzeke aukera izn dugu.


ZORIONAK, beraz, Manuri eta baita bere lankide izan diren Jabi eta Josuri ere. Zorionak gure jokalari gazteei eta zorionak, ondorioz, Bergarako herri osoari.

Bergarako futbolzaleak

Tiira ba!

Josu Okina

-BAKALLAUA GERTATZEN HI HAIZ TIPO ABILLA...


-BIXOK MAJO AFALTZEKO BAJAUKUAU PILLA
 -EKARRIK ARDAU BELTZAETA EZ EGON TRISTE
 -NIK DAKIXATEN BATEK EGIU JOSKUK TXISTE




Mendia berez garbia

Gipuzkoa mailan antolatu den *Mendia berez garbia* kanpainaren barne, aurtun ere Pol-Pol Mendizale Taldea Irukurutzeta eta Pol-Pol ingurua garbitzera joango da larunbatean. Irteera honetan zaborra jasoko da, herrira itzuliz. Parte hartzeko interesatuak goizeko 10etan Pol-Pol aurrean aurkez daitezke.

Brusak JARDUNen

Bergarako jaietan JARDUNek antolatu-tako Brusa Lehiaketan parte hartu eta oraindik ere brusa jasotzeko aukate-nak, JARDUN Elkar-tetik (Masterreka, 13) pasa daitezke.

Asteleheneko Plenoan arau subsidiarioak aztertuko dira

Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeburua eta Xabier Ieregi udal arkitektoak astelehenean, hilak 14, Plenoan aztertuko diren arau subsidiarioen kontu eman zuten asteazkenean. Ieregik adierazi zuenez, 1954.eko Plan Orokorrrari eusten diote oraingo arau subsidiarioek eta berak esan bezala, *"udal korporazioarekin oso barreman estua egon da hasieratik arauak gauzatzeko"*.

Astelehenean aurkeztuko den dokumentuak herri osoaren ordenazioa hartzen du (zoru eraikigarria eta eraikiezina zehaztuz) baina Ieregik esan zuen moduan, *"gauza bat da planifikatzen dena eta beste bat planifikazio hori aurrera eramateko dauden bideak, jestia hain zuzen"*. Arauak atzera-



Ieregi, Victoriano Gallastegi eta Xabier Gallastegi prentsaurrean.

tzeko arrazoen artean, herriak berak daukan zailtasunak (oso luzea) eta urteotan Beasain-Durango eta beste hainbat proiekturen zain egotea azpimarratu zituen; *"Bestalde, herritarrak informatzeko asmoz, arauak jasotzen dituen bideo bat kaleratu eta, beharrezkoa balitz, hitzaldiak*

antolatuko lirateke".

Xabier Gallastegik esan zuenez, *"hirigintza ez da arauekin bukatzen, hor baitago, esaterako, parte zabarraren berriztea"*. Victoriano Gallastegi alkatea, berriz, alegazioen bat egon badaiteke ere, arauak alderdi guztien oneritzia jasoko dutela aurreratu zuen.

Musika protagonista

Musika Eskolako taldeek arrakasta berri bat lortu zuten igandean, aurtengo Udaberriko Kontzertuan. Gazteen Bandak giroa *berotzeari* ekin zion goizean burututako kalejirarekin eta ondoren Mariaren Lagundian izan zen kontzertuan gainontzeko taldeek ere beren maila erakutsi zuten. Jende dexente bildu zen bertan eta Orkestra Sinfonikoa, Tipleen Abesbatza (argazkian), Akordeoien Orkestra eta Gazteen Bandak berak azkenaldian landutako piezak eskeini zituzten. Ondoren, festa borobiltzeko, bazkari herrikoia egin zuten Espoioian, Ibaiak taldeak bazkalostea alaituz.



LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

BOLINTXO

*Kirala eziteko
behar den guztia*

Ibargarai 10,
☎ 76 38 32

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

Jubilatuak Zarautzera

Jubilatuak eskursio bat iragarri dute Zarautzera ekainaren 25erako. Irteera goizeko 9 terdietan egingo da Beheko Estaziotik, bazkaria ordubietan Biuri jabetxean eta Loiolako Santutegia bisitatu ondoren buelta 8etan. Prezioa 2.300 pta.koa da eta izena emateko azken eguna ekainaren 18a.

Balentziaga Orotonovon

Juan Balentziaga artista bergarra Ortonovon (Italia) izango da uztaile arte marmolezko hiru eskultura egiteko asmoz. Pasa den urtean, bergar margolariak Ortonovora eginiko bisitaldian, Balentziaga aukeratu zuten Europako Ekomomi Elkarteko beste eskultore batzuekin esperientzia honetan parte hartzeko. Bestalde, Balentziagaren pintura, eskultura eta zeramika erakusketak Arrasateko Ospitale Psikiatrikoan ikus daitezke ekainaren 30ra arte, astegunetan 5etatik 6 terdietara eta larunbatetan 11etatik ordubatera eta 5etatik 6 terdietara.



Saritutako gaztetxo bakoitzak liburu eta prismatiko bana eskuratu zituen.

Ingurugiroarekin sentsibilizatuta

Larunbatean Nazioarteko Ingurugiroaren Eguna ospatu zen


Udaleko Ongizate Batzordeak eta talde ekologistek hainbat ekitaldi prestatu zituzten larunbatean ospatu zen Nazioarteko Ingurugiro Egunerako. Lehenbizi 30 bat haurrek ibilaldia egin zuten Usondo, Errekalde eta Unzetako parkeetatik zehar. Ondoren EEEko anagramarekin landaretxoak banatu ziren eta, azkenik, OHoko 2. zikloko ikasleentzat antolatutako *Imajina ezazu Bergara...* marrazki eta erredakzioko sariak banatu ziren Kultur Etxean. Bertan izan ziren, besteak beste, Victoriano Ga-

llastegi alkatea, Alvaro Esparza eta Jabier Cendoya zinegotziak, Ines Etxeberria Ongizate Zerbitzuko burua eta Mendia Bizirik eta Eguzki taldeetako kideak. Sarituak honako hauek izan genituen: 6. mailakoen artean, Aitor Barrutia (idazlana) eta Itziar Urzarbarrena eta Ainhoa Sanchez (marrazkia), 7. mailakoen artean ez zen saririk eman eta 8. mailan, berriz, Ione Rivas eta Maddi Arzamendi (idazlana). Aranzadi Ikastolako talde batek egindako bertso grabaketak ere sari berezia jaso zuen.

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
☎ 76 06 37

Etxearen goxotasuna bere barnean dago

San Miguel E. A.


San Lorentzo, 4
☎ 76 47 90
☎ 76 01 15

Isolatu zeure etxea
hotz eta zaraten kontra



LILURA
EDERTZE
INSTITUTUA

Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA



Aukeratutako bi proiektuei laguntza ekonomiko eta teknikoa emango zaie.

Arrisku soldata programa

Enpresa ideia programa 18 urtetik gorako langabetuentzat

Begarako Udalak 1993rako Arrisku Soldata programa martxan jarriko du. Programa honetan enpresa ideiarene bat duten pertsonen parte hartu ahal izango dute eta aukeratutakoei laguntza ekonomiko eta teknikoa eskeinitu zaie.

Aurkezten diren enpresa ideien artean bi aukeratuko dira eta ideia bakoitzaren promotoreari lau hilabetetan zehar dirulaguntza emango zaio. Aldi berean, beharrezkoa ikusten den heziketa eta *kontsul-ting* profesional baten laguntza ere eskeinitu da. Arrisku Soldata pro-

graman parte hartu ahal izateko 18 urtetik gorako langabetua izan eta Bergaran erroldatuta egotea eskatzen da.

Interesatuak 1993eko irailaren 3a baino lehen egin beharko dituzte beren proposamenak Irizar Jauregiko Enplegu Dinamizatzailearen bulegoan eta NAN fotokopia, langabetu txartelaren kopia, errolda-ziurtagiria eta enpresa ideiarene azalpena aurkeztu beharko dituzte. Argibide gehiago Enplegu Dinamizatzailearen bulegoan eskura daiteke.

HIESaren inguruko ihardunaldiak

Arrasateko HIES Ekimena Elkartek abenduaren 1ean hasi (HIESaren Nazioarteko Eguna) eta 22ra arte, Deba Garaiko HIESaren inguruko ihardunaldi batzuk antolatuko ditu Arrasaten. Bertan, musika, hitzaldi, margolaritza, antzerkia, keramika, argazkigintza, bideogintza... etab. luze batek izango du bere tarteak. Parte hartzeko interesa duten guztiek 792699 telefono zenbakira jo dezakete.

Aranzadi Ikastola eta Labegaraietako zozketak

2.318 zenbakia saritua izan da Aranzadi Ikastolako ikasleek ikas-bidaiaren alde eginiko zozketan. Zenbakiaren jabeak (Mari Karmen Zelaieta) Suzuki Maxi motorra kaskoarekin edota 100.000 pta. eskuratuko ditu. Bestalde, Labegaraietako jaietan eginiko zozketan, 5.980 zenbakia izan da saritua. Irabazleak Lasa Jatetxean 4 pertsonendako afaria edo bazkaria irabaziko du.

SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA




Barrenkale 31

Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Ibilgailu zaharren konzentrazioa egingo da astebukaera honetan Bergaran

1923-1965 urte bitarteko ibilgailuak ikusi ahal izango dira


Larunbatean, ekainak 12, Bergara Racing taldeak Udalaren laguntzaz antolatuta, ibilgailu zaharren konzentrazioa egingo da Bergaran.

Arratsaldeko 6 terdian ibilgailuak Aseginolaza tailerretan bilduko dira, Beasainetik datozen partaideei ongi-etorria emanez. 7etan ibilbide bat burutuko da herrian zehar eta ordu erdi beranduago eta gaueko 9ak arte ibilgailuak jendearentzat ikusgai izango dira Fraiskozurin (Fron-toian). Igandean, ekainak 13, goizeko 11tan beste ibilbide bati hasiera emango zaio Frontoian, 12 terdian kotxeak ikus-teko modua izango da berriz ere eta ordubata terdian partaideek bazkaria egingo dute Osintxuko Txuringo Ja-tetxean.

Imanol Larrañaga Bergara Racingeko presidenteak "honetako kon-zentrazio bat lehen aldiz Bergaran egitearen ga-rrantzia" azpimarratu eta, era berean, Udala eta Pertxa Elkartearen la-guntza eskertu nahi izan zuen. Nuvolariren lana ere ezinbestekoa izan da konzentrazioa antolatu ahal izateko. Ibilgailu zaharrekiko zaletasuna duten 60 bat lagunek

osatzen dute Nuvolari eta Bergaran 15 bat partaide izatea espero da (gehienak gipuzkoarrak, Fran-tziatik eta Logroñotik ere etorriko direla) eta kotxeak (13 inguru) eta motorrak (igandean, 15 bat) egongo dira ikusgai. Luis Mitxelena elkarteko idazkariak dioen moduan, "12 bat konzentrazio egiten ditugu urtean eta jende gazteak nagusiek baino interes handia-goa azaltzen du kotxe zaharrekiko. Azken ba-tean, ekitaldi kultural bat dela esan genezake eta jendeak asko ikasten du".

Luis Mitxelenak aurreratu zigunez, astebu-kaeran 1923-1965 urte bitarteko Hispano-Suiza, Buick, Plymouth, Citroen, Ford, Volkswagen, Opel, Renault, Peugeot edota Seatak ikusi eta... mirestu ahal izango ditugu.




Goiko argazkian Amilcar izeneko kotxea. Behekoan, 1927 urte inguruko Ford Modeloa ikus dezakezue [Argazkiak: Lazpiur].



Juan Martin Elexpuru, "Alpeen itzalpean"

Atzo aurkeztu zen UNEDen irakasle eta idazle uberararraren bosgarren liburua

Juan Martin Elexpuru Uberan jaio zen duela 42 urte eta UNEDeko irakaslea izateaz gain idatzi ere egiten du. Ostegunean aurkeztu zen UNEDen, Mikel Hernandez Abaituaren "Ispiluak" liburuarekin batera, bere bosgarren liburua, italiar Alpeetatik zehar bizikletan ibili ondoren idatzitako bidaia liburua.



"Italiako Iparraldeko geografia, historia, ipuinak... tartekatu ditut liburu honetan"

- Zertaz da "Alpeen Itzalpean" liburua?

- Bidaia liburua da. Bidaia liburua modu askotakoak izan daitezke; normalean norberaren ibilerak kontatzen dira, ezagututako jendea, bidean gertatutako gorabeherak, etb. Ni, horretaz gain, saiatu naiz Italiako Iparraldeko geografia, historia, ipuinak eta horrelakoak tartekatzen.

- Bidaia Italiako Alpeetan dago kokatua, baina hiri batzuetan ere izan zinen, ezta?

- Bai, Genova, Milan, Verona eta Venezia ezagutu nituen eta horiei buruz ere idatzi dut. Milan oso hiri modernoa da, Verona oso ederra eta lasaia, erromatarren garaiak eta ertaroko monumentuz beteak; Genovako parte zaharra abandonatu osoan dago eta lumpenaren bizileku bihurtu da,

eta Venezia berriz ba, denok ezagutzen dugu argazkiz behintzat. Gero prealpeak oso ederrak dira. Laku haundiak daude inguruan arboladi eta lorategi ikusgarriekin. Eta zer esan Alpeei buruz. Alpeen barruan Dolomitak oso bereziak dira beren pareta bertikal eta buru zabalekin.

- Bidaia egiteko garrantziak berezia auzeratu zenuen.

- Bai, bizikletan egin nuen. Bizikletazalea izan naiz txikitatik. Zorroak ipini, tren hartu eta Mi-

laneraino joan nintzen. Han bizikleta hartu eta aurrera. Harrezkero ere egin ditut halako batzuk.

- Esan duzu egin dituzula beste bidaia batzuk ere. Zergatik aukeratu duzu Italiako liburua idazteko?

- Beharbada lehenengo izan zelako; kuaderno eraman nuen eta han apuntatzen nituen eguneko gorabeherak. Gainera bakarrik ibili nintzen eta hala errazagoa izaten da idaztea; argiago egon ohi zara, sentiberago, eta idazteko orduan inor ez

duzu konprometitzen.

- Euskal literaturan bidaiei buruz ez dago liburu asko...

- Ez. Nik hiru edo lau ezagutzen ditut bakarrik: gerra aurretik Jean Etxepare iparraldeko medikuak idatzitako "Berebiler", 1966an Agustin Anabitartek argitaratu zuen "Aprika'ko Basamortuan" eta 1986an Agustin Egurrola markinarak idatzitako bat, oso bitxia: emaztea, bi urteko neskatila eta hirurak astoa hartu eta Euskalerrri osoari itzulia eman zioten urtebetean. Baina kasualitatea, nerea agertu zen bezperan aurkeztu zen Gasteizen Fernando Presa-k Latinoamerikan zehar bizikletan egindako ibilaldia kontatzen duen liburua. Urtetan ezebez eta bi egunetan bi.

- Zure aurretiko liburuekin konparatuz apurketa bat ean da gaiaren aldetik?

- Neri beti gustatu izan zait gauza difeenteak egitea; ez dakit apurketa den, baina ezberdina behintzat bada.


- Jendeari zure liburua erosteko zer esango zenioke?

- Hortik zehar ibiltzea gustatzen bazaio, oinez, bizikletaz, kotxez, berdin da, batzutan identifikatua sentituko dela. Gero eskualde oso ederra deskribitzen da eta bidaia lasaia egingo du butakan jarrita, mila pezetagatik. Hamabi mapa ditu liburua irakurlea galdu ez dadin.



Igandeko bozketak normaltasun osoz burutu ziren. Datu azpimarragarria, azken urteetako abstentziorik altuena izan zela.

J.L. Elkoro Senatore








Jose Luis Elkoro, HBk lortu duen senatore bakarra, bigarren aldiz aukeratu dute Gipuzkoatik senaturako. Gasteizen 2 legegintzalditan parlamentari izan da (84-86 eta 86-90). Gipuzkoako Batzar Orokorretako batzarkide 3 legegintzalditan (77tik aurrera) eta Bergarako alkate 1976tik 1979ra eta 1987tik 1991ra.


Zenbait bitxikeria

- **Udal Hauteskundeak Hauteskunde Orokorrekin zerrikusirik ez duten arren, igandeko bozketako emaitzak Udalera estrapolatu ezkerro hau izango litzateke emaitza:**
HBk, 5 zinegotzi; EAJk, 5; EA-EUEk, 3; PSE-EEK, 3 eta PPK, 1.
- **Seminarioan jarritako mahaietan pertsona heldu bat 1967ko Arma Lizentziarekin joan zen botoa ematera.**
- **Beste batek, ostera, Zerga Aitorpena egiterakoan desgrabatu ahal izateko botoa eman zuela baieztatzen zuen agiria eskatu zion mahaiko presidenteari.**
- **Zorte txarra bada ba hauteskundeetan mahaietan egon beharra. Guztion betebeharra da... Igandean, mahaietan egotea tokatu zitzaion batek, badaezpada telebista aparailua eta irrati transistorea eraman zituen. Retegi eta Arretxeren arteko pelota partidua, Indurainen Giroko etapa bikaina, Bruguera Roland Garrosen lortutako garaipena... derrigorrez ikusi beharrekoak ziren.**

EMAITZAK ZONALDEKA

| | ERDIALDEA | MATXIATEGI | IBAIONDO | MARTOKO | IBARRA | OSINTXU | GUZTIRA |
|--|-----------|------------|----------|---------|--------|---------|---------|
|  | 998 | 402 | 301 | 331 | 283 | 138 | 2.453 |
|  | 1.023 | 293 | 242 | 288 | 192 | 130 | 2.168 |
| EA * EUE | 707 | 226 | 118 | 160 | 109 | 49 | 1.369 |
|  | 486 | 320 | 136 | 286 | 52 | 35 | 1.315 |
|  | 256 | 97 | 36 | 74 | 17 | 9 | 489 |
|  | 136 | 52 | 43 | 75 | 7 | 7 | 320 |
| BESTE BATZUK | 45 | 63 | 10 | 28 | 6 | 4 | 156 |
| ABSTENTZIOA | % 31 | % 30 | % 39 | % 39 | % 39 | % 36 | % 34 |
| BOTODUNAK | 5.482 | 2.138 | 1479 | 2.073 | 1.104 | 587 | 12.863 |

ERDIALDEA: kalea, Elosu eta Bolu aldeko botuak. IBAIONDO: Zubieta, San Lorentzo, Baslago, San Juan, Ubera...
MARTOKO: Mintegi, San Antonio, Martoko, Zubiaurre... IBARRA: Labegarieta, Ibarra, Ozaeta, Elorregi, Angiozar...
OSINTXU: Osintxu, Murinondo, San Anton...




**Jose Luis Elgoro
(HB)**

Bipolarizazioak baldintzatu egin ditu hauteskundeak, horregatik igo dute PSOE eta

PPk.

HBren emaitzak onak izan dira: herrian lehen indarra gara eta kontutan izanda gure kanpaina oso murriztua izan dela, ez baitugu beste batzuek izan duten oihartzuna izan komunikabideetan.

Euskadi mailan ere, emaitzak onak izan dira, herrialde guztietan igo egin baitugu 91ko emaitzekin konparatuz.




**Victoriano Gallastegi
(EAJ)**

Gure balorazioa positiboa izan da. Bergaran 89ko hauteskundeekin konparatuz

228 boto irabazi ditugu.

Euskadi mailan ere gora egin dugu, hala ere gure asmoa 6 ditutatu ateratzea zen.

Erreflesionatu beharra daukagu, boto ez abertzaleak gora egin baitu Euskal Herrian. Baina uste dut beste alderdi batzuek guk baino gehiago erreflesionatu beharko luketela, EAJk gutxienez, bere botoak eutsi eta gehitu egin baititu.





**Juan Mari Garitano
(EA-EUE)**

Bergarako EA-EUEk balorazio positiboa egiten du 91ko Udal Hauteskundeekin

konparatuta. Baina 89ko bozketetara atzeratzen bagara EUEtik jaso genitzakeen botoak ez ditugu geureganatu.

Gazteria abertzalearen abstentzioak min asko egin digu eta Gipuzkoa mailan ikusi dugu ez duela primatzen politika garbi bat egiteak, Murrua eta Albisturren politika garbia ez dute hautesleek beren neurrian baloratu.



**Javier Cendoya
(PSE-EE)**

PSE-EE alderdian izandako konbergentziak igandean lortutako emaitza positiboan la-

gundu egin du, EEren hautesleen laguntzarekin.

Erreferentzia gisa, Mario Onaindiaren garaipen garbia: 84.057 botu Senatutarako; Kepa Aulestiak, berriz, (EA-EUE) 65.600 botu. Ikusten da EEren hautesleek beti izan duten ezker sozialistaren filosofia, eta proiektu politikoa berrian garbi ikusi da, Arraga Antzokian martxoan errealitate bihurtu zena.

Aretxagazeta

ARRASATE
PRESS


BERGARA

elgoiBARREN

ERAZ

...eta kitto!

Herri aldizkarien gehigarri berezia




Euskal Bizikleta 93

50 urte betetzen ditu Eibarko karrerak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Jose Antonio Azpilikueta, 50garren urteurrena ospatzeko egindako txartela.

Euskal Bizikleta 93, erronka berri bat.


Chioccioli, Fignon, Zulle, Ugrumov, Breukink, Madiot, Cabestany, Delgado, Bernard, Gorospe, Cubino, Mauri, Etxabe, Gaston, Ivanov, Chozas edo Rooks bezalako izen ezagunak Eibarko irteeran eta akaso bertan izango dira Bugno eta Argentin ere, Txirrindulari profesionalen tropeleko hamabost taldeko partaide. 70 milioitako aurrekontua. 882 kilometro bost etapetan banatuta, 3. mailako 9 mendate, 2. mailako 6 eta 1. mailako 3; tartean, Azurki gainaren nobedadea, bide estua eta aldapa gogorra, hirugarren etapako helmugatik 45 kilometrotara. Bada nobedade gehiago: tropela Bilbon sartzeko erronkari aurre egitea lehen etapan, Euskal Bizikleta lehen aldiz Nafarroara eramatea bigarrenetan, azken etapa, eskuz-eskuzko pilota finala medio, arratsaldez burutu behar izatea, edo Arraten irabazten duen txirrindulariari 500.000 pztako. sari berezia ematea.

Beraz, erronka berriei aurre eginez dator aurtengo Euskal Bizikleta, **50. URTEURENA** betetzen duen lasterketa. Urtebetzea kontuan hartuta, antolatzaileek, txirrindulari hauen ahaleginaz aparte, gozagarri gehiago prestatu dituzte zale-tuentzat: argazki eta txirridu erakusketa Eibarko Udaletxean, txirrindularitza buruzko hitzaldiak, Arraten irabazle izan diren gizon askoren bisita... eta Arrateko igoyeraren historia jasotzen duen liburuaren argitaratzea Gabonak alderako. Eta, dirudienez, hurrengo urteetan bide beretik jarraitu nahi dute, ia ziurtzat ematen baita datorren urtean etapa bat Iparraldean bukatzea, Miarrizten hain zuzen ere.


Ekainaren 16tik 20ra Eibaren txirriduaz hitz egingo da, eta ez Eibarren bakarrik, ETBren lanari esker, euskaldun askok etxetik edo auzoko tabernatik errepide ondotik bezain bizi ikusiko du txirrindularien ahalegina.

Onenak irabaz dezala!


1. Etapa




2. Etapa




3. Etapa



4. Etapa



5. Etapa



Argitaratzaileak: Aretxagazeta, Arrasate Press, Berrigara, Elgoibarren, Eraz, ...eta kitto! herri aldizkariak
 Erredaktoreak: Beñardo Kortabarria, Jose Luis Gorostegi.
 Maketatzailea: Jose Luis Gorostegi.
 Inprimategia: Gertu Koop. (Oñati).

Julian eta Mikel: oraina eta geroa

— Julian, 12 urte profesionalen artean, gauzak asko aldatu dira denbora horretan?

— Teknologiari dagokionez aldaketa handiak egon dira, baina bestela ez. Orain urte batzuk baino interes handiagoak daude, publizitateak gero eta garrantzi handiagoa dauka, telebista sartu da... baina oinarrian ez da aldaketa nabarmenik. Taldeetako aurrekontuek gorantz egin dute eta krisia hortxe igartzen da, orain ez baita posible etxe txiki batek, garai bateko Reynolds edo BHk esaterako, talde bat ateratzea.

— **Telebista dela eta txirrindulariak pertsona ezagun bihurtu zarete, nola daramazue famaren presioa?**

Julian — Beno, nik urte asko daramatzat mundu honetan eta dagoeneko telebista edo prentsak dionak ez nau gehiegi arduratzen; Zarrak, berriz, zailtasunak izango ditu seguruen. Euskal txirrindularitzan oso garai ona bizi izan dugu, baina orain ematen du hutsune bat dagoela, eta badirudi bera izan daitekeela hutsune hori

bete dezakeen pertsona. Argi dago, zaletuek gogo hori dutela eta horregatik oso entzuna bihurtzen ari da Mikelen izena. Zarra gaztea da eta oso kualitate onak ditu, beraz gauzak lasai hartu eta jendeak esaten duenari kasurik ez egin, nik behintzat hori gomendatuko nioke.

Mikel — Arduraren antzeko zerbait sentitzen dut, baina paso egiten saiatzen naiz, jendeak dionaz ahazten. Eguneroko lana egin eta kitto, besterik ez. Baina ez da erraza, jendeak beti gehiago nahi duelako.

— **Euskal Bizikleta?**

J.— Asko aldatu da, orain itzuli modura antolatzen da eta normalean desgastea igartzen da egun batetik bestera. Era zaharrean, bi aldiz korritu dut bakarrik, eta ez zitzaidan ondoegi joan, Arroyo eta A. Fernandezek irabazi zuten.

M.— Niretzat egokiagoa da lasterketa orain dagoen moduan eta ez era zaharrean. Nahiz eta erlojuaren aurkako lasterketetan gaizki moldatu ez, zerbait gaxtagoa nahi dut. Edozein modutan, uste dut Girotik datozenen artetik



Txirrindulari ez ezik, lagun ere bai.

irtengo dela irabazlea, forma onean datozelako maila handiko txirrindulariak.

— **Parte hartzeko asmorik?**

J.— Ez dakit ziurtasunez, baina normalena litzateke.

M.— Espainiako itzulia bukatuta, Minguezek bi hilabete t'erdiko atsedendia eman dit, ondorioz ez dirudi Ordiziako klasikararte beste lasterketarik egingo dudarik. Dena dela, badakit antolatzaileek ni eraman nahi nautela eta presio lana egiten ari direla eta egingo dutela Amaya taldearen aurrean, baina printzipioz ez noa, gero azkenean ikusi egin behar.

— **Mikelek Espainiako itzulia aipatu du, balorazio ona egin duzue?**

J.— Talde moduan ez dut uste Banestorentzat itzuli ona izan

zenik; pertsonalki nahiko on ibili naiz, neure mailan. Mikel ikusi nuen ondo, lehen bueltazateko beti ibili da aurrean, esperientzia apur batek gorago egongo zen.

M.— Beti ez naiz ibili aurrean! Julian nola ikusi dudana ba...

J.— Nola ikusiko ninduen beti atzean!

— **Aizue, asko hitz egiten duzue Euskadi Fundazioaren Gorospe zuzendari, Zarrabeitia lider...**

J.— Ez dakit Euskadi Fundazioaren aurrera egingo duen ala ez. Dena dela, niri dagokion denez, oraindik beste urtebete bizikleta gainean egiteko asmoa daukat. Ekipo berri bat egiteko, ekipo ona noski, fexu hauetarako gauza gehienak eginda egon beharko lirake.

Kafetegia
Taberna



- Pizzeria
- Plater konbinatuak
- Sandwichak
- Hanburgesak

Berandu samar dabiltzala uste dut.

M.— Horri buruz egin dute berba nirekin, baina berba bakarrik, gehiago ez. Momentuz, Amaya taldean oso gustorago, ikusi egin behar taldeak jarraituko duen edo ez, baina momentuz ez daukat aldatzeko asmorik.

J.— Ekipo guztiak kontratatu nahi dute Zarra eta berarentzat hobe izango litzateke talde indartsu batean egotea. Jendearen aldetik, normala da Zarra Euskadiko taldean ikusi nahi izatea, baina berarentzat talde berri eta ezezagunean sartzea arriskutsua da, gaztea da oraindik eta horrelako taldean berak egin beharko luke guztia eta ardura osoa hartu.

— **Eta euskal txirrindularitzaren etorkizunaz, zer diotazue?**

J.— Pazientzia behar da jende berria iritzeko, boladak daude eta. Tropelean gauden gehienok, orain 10-12 urteko txirrindulariak gara. Banaka batzuk pasa dira berandugo eta polito dabilta. Urteetik urtera aldatzen dira gauzak, osasunak laguntzen duen edo ez, suertea, istripuak... gorabehera asko daude. Momentuz hor dago Indurain eta baliteke hemendik gutxira Zarra edo Garmendia ere hor izatea.

M.— Bai egia da, suertea behar da urte batean bai eta bestean ere ondo ibiltzeko.

Kasu nabarmenak gertatu dira, azkena Lazpiurrena, esperantza handia da, baina osasunak ez dio batere laguntzen.

— **Txirrindularitza ikusizun bilakatu da, nola ikusten duzue kazetarien lana?**

J.— Giroan nahiko ondo ari dira, eta komentarioak ere ez dira txarrak, nahiz eta idearik ez daukan bat tartean ibili. Espainiako itzuliko telebistako komentariak oso txarrak ziren, gero eta gutxiago gusztatzen zaizkit, huts ugari egiten dute. Futboleak egiten duten bezala, laguntzeko ulertzen duen norbait eraman beharko lukete.

— **Eta zaletuekin zer moduz?**

J.— Pasatu egiten dira. Alde batetik ulertzekoa da, gu igaro baino 3 edo 4 ordu lehenago joaten baitira, bokadiloaz... aurrez telebistako komentarioak entzunda edo egunkariko deklarazioak irakurrita joaten dira... berotuta egoten dira gu iristen garenerako.

M.— Askotan lagundu barik traba egiten dute, aldamenen jarri, ura bota burutik behera, bidea estutu, ikurrinak edo pankartak aurpegian jarri, kolpeak eman... animatzea polita da, baina ez horrela. Jendea errepide bazterrean egon beharko litzateke edo muga gainetan eta bertatik animatu, zaletuen ohiuek benetan animatzen dute eta.

Lekukoa pasa eta hartzeko ordua



Batek 33 urte, besteak 23. Bat oraina izan den joanaldia da, bestea oraina den etorkizuna. Julian Gorospe bat, bestea Mikel Zarrabeitia.

Edonori gustatuko litzaioke, euskaldunon idoloa izatea, baina edonork ez du aukera hori. Deituak gutxi dira, baina Mikelek, aukera bakarrik ez: Mikel izan daiteke eta jadanik, da.

Julian azken ostikadak ematen ari da eta luzaroan gure ametsak egia bihurtu zorian izan gaituenak, laster, agur esango digu. Gure zorionerako, hor dugu bien bitartean ate joka Mikel Zarrabeitia.

Julian Gorospe kirolari handi bat da. Maiz erakutsi digu, ondo baino hobeto dakie la irabazten eta galtzen. Batzutan bera izan da "leader": guztiok aho zabalik utzi gaitu, batez ere, bakar-bakarrik, erlojua eta norbera direnean etsaiek, lasterketa handiak eginez. Lasterketak nonahi irabazi ditu, palmarek aparta du, agian bere karrerari ohorezko matrikula emateko itzuli handi bat menperatzea falta izan zaio, baina ordainetan, txintik ere atera gabe, Kixote handientzat, Santxo Panzarik onena bera izan da. Eginbehar hori edonork ez du onartzen; dena izan denari ezinezkoa zaio, baina Juliani ez. Oso bikain!

Mikelentzat irakasle eta eredu on bat da Julian, hala ere, bide ona hartu duela ezin uka. Iaz Errioxako itzulia irabazi zuen, bere lehen itzuli handian, aurtan 12. amaitu du, taldearentzat txapela kentzeko moduko lana egin ondoren. Hasi da, orain jarraipena behar du. Bidea urratsez urrats egiten da, eta lehenengoak kolore ona dute, txapeldunen kolorea. Ez dadila ajatu.

Arritxu Iribar.

HOGEI

Tfno. 12 10 19
Bittor Sarasketa, 7 - EIBAR

Autoberezi


Tfno. 76 62 10
Bº. Antigua, s/n - BERGARA-ANTZUOLA

=KANPAZAR

Tfno. 79 41 98
Avda. Bizkaia, s/n - ARRASATE

FIAT

TIPO BERRIA. SEGURITATERAKO SORTUA.




TIPO BERRIA. 3 ETA 5 ATE.

Euskal Bizikleta, 50 urte sasoi betean

Berrogeitamar urte. Ez dira inorentzat eta ezerentzat alperrik pasatzen eta horregatik, 1941. urtean antolatu zen lehen Arrateko igoerak ia ez du zerikusirik gaur eguneko Euskal Bizikletarekin, antolatzaileek gauzak ondo egitearren eta txirrindulariek garaipena eskuratzearren erakusten duten ahalegina ez bada behintzat.

Arrateko igoeraren sorrera Klub Deportiboaren baitan kokatzen da, urtero Arraten burutzen zen finalista-egunean hain zuzen ere. Finalista-eguna urtean zehar ehun mendi baino gehiago igotakoei omenaldia eskaintzeko egiten zen. Sari-banaketa soila pobre samarra zenez, eguna girotzeko bizikleta igoera antolatzea pentsatu zuten, Arantzazurako igoera erreferentziatzen hartuta. 1941. urtean antolatu zen lehen aldiz, eta kategoriarik gabeko txirrindulari-lasterketa zen, behe mailakoa. Maila txikiko lasterketa izanda ere, zenbait arazo gainditu behar izan ziren lehen igoera hura burutzeko. Gerra bukatu berria eta gasolina premia zegoenez jai-egunetan ez zuten uzten autorik erabiltzen; bestalde, jende-konzentrazioak ere, debekatuta zeuden. Ondorioz, Arrateko lehen igoerako bezperan oraindik ez zegoen karrera burutzeko baimenik,



Anton Barrutia Uzartza gainean 1955. urtean.

azkenean lortu bazen ere.

Txokoren agerpena

Arrateko historiaren hurrengo data erabakiorra 1944. urtea da, Juanito Gisolsa "Txoko" antolatzaileen batzordean sartu zen urtea. Juanito "Txoko"k lasterketaren filosofia aldatu zuen, orduarteko maila txikiko frogari, poliki-poliki maila handia eman behar zitzaiola uste baitzuen. Goi-mailako frogari bihurtzeko lehen urratsa, txirrindulariak gonbidatzea izan zen; horrela, irteeran txirrindulari gutxi baina onak biltzen ziren. Behin baino gehiagotan gertatu zen gonbidatu gabeko txirrindulariren bat agertzea

ere, eta ez zitzaion trabarik jarri, baina printzipioz lasterketan bakarrik gonbidatuek har zezaketen parte.

Poliki-poliki eibartarren txirrindulari-froga indarra eta fama hartuz joan zen. 1955-56 urteen inguruan, berebiziko interesa hartu zuen lasterketan, Loroño-Bahamontes norgehiagokak pil-pilean zeudela. Kontuan hartu behar da Eibarren etorkin ugari zegoela eta ondorioz, izugarriko pikeak sortu ziren bizkaitarra eta toledarraren aldekoen artean, lasterketarekiko ikusmin paregabea sortaraziz.

Anquetilen etorrera

Behetik gorako bide luzean,

duda barik, urterik garrantzitsuen 1963. urtea izan zen Jacques Anquetil frantziarra lehen aldiz etorri zen urtean. Garai hartan, Anquetil zen txirrindulari nagusia, munduko txirrindulari onena, eta bera onen ekartzeak sekula galduko ez zuten maila gorena eman zion Arrateko igoerari. Ez zen beste erre erraza izan Anquetil frantziarra Eibarrera ekartzea. Juanito "Txoko"ren lorpena ikaragarria izan zen. Frantziarra joan eta Anquetilen mahaigerraz hitz egin zuen; bai alperrikerri, Juanitok ezezeko boronbata jaso zuen eta. Ez zuen horregatik eibartarrak umoreka eta kokildu barik, Anquetilengana jo zuen. Eibartarra, kon-



LIZARRALDE

KIROLAK

TXIRRINDULARI GUZTIEN OÑATIKO LAGUNA

Olakua 16
Tel. 78 29 86

OÑATI

tratoa besapean hartuta, gustora itzuli zen herrira. Dena eginda zegoela zirudien, baina tartean Anquetilek Paris-Roubaix eta Paris-Niza klasikak irabazi zituen, eta Milan-San Remo Eibarko lasterketaren egun berean zenez, italiarrek hara eraman nahi zuten. Laster iritsi zitzaion Espainiako Federakuntzaren agindua Juanitori, kontratoa apurtzeko. Juanitok ez zuen kasurik egin eta lasterketa baino 2-3 egun lehenago, Anquetilek deitu eizion, bere hemen ez egoteko presiorik jaso ote zuen galdezka eta lasai egoteko esanez. Lasterketa egunean hemen zen, baita ondorengo hiru urtetan ere. Ordutik, Eibarko lasterketa, "Arrateko igoera", "Eibarresa" edo "Euskal Bizikleta" izenarekin, beti txirrin-
du-munduaren gailurrean egonda. Jesus Loroño, Bahamontes, Antón Barrutia, Poulidor, Ocaña, Gimondi, Bobet, Kunde, Lejarreta, Alberto Fernandez, Bugno, Chioccioli... osa ezina izango litzateke txirrin-
dulari onenen zerrenda. Azken berrogeitamar urteetan txirrin-
dularitza zerbaitekin izan diren guztiak Arraten egon dira; bat izan ezik, Eddy Merckx belgiarra, nahiz eta ahalegin ugari egin hura ekartzeko... hori eta hiru urtetan ez burutu izana, izango dira seguru-
ren berrogeitamar urte bete dituen lasterketa honen huts bakarrak.



Anquetil 1965. urtean

Eibarko txirrin- dularitzari buruzko liburua martxan

Gabonak aurretik kalean izango da "Eibarko bizikleta eta ziklismoaren historia" jasoko duen liburua. Liburu mardula izango da, 250 orrialdeetako gutxi gorabehera, formato handian eta argazki ugariz osatuta; bertan Eibarren 1910. urtean hasi eta gaur egunera arte gertatu diren industri-
aurrerapausuak, bitxikeriak, kirol-emaizak etab.

Testuaren gehiengoa euskaraz irakurtzeko aukera izango den arren, pertsonaien nazio-

nalitatea kontuan hartuta, gaztelaraz eta frantseseraz egindako elkarriketak ere sartu dituzte. Ulertzen ez dutenez, horrelako elkarriketen bukaeran testotxo bat emango da euskaraz, laburpen gisa.

Kaleratzeko asmoa dagoen liburuaren 3.000 aleek argia Gabonak aurretik ikus dezaten jo ta ke lanean ari direnak, honako hauek: Begoña Azpiri, Juanjo Sebastian, Jose Arambarri, Antton Gutierrez eta Luis Mari Atxa.

Kategoriako lasterketa

Txirrin-
dulari-lasterketa interesgarria dugu berriz ere begibistan. Eibartarrek ikuskizun handi berri bat prestatu digute, eta gainera aurtien Arrateko igoeraren berrogeitamargarren urteurrena betetzen da. Zita gutxik dute honelako historiari. Duda barik, ausardia eta antolatze gaitasuna duen jendeak lor dezakeen efemeride baten aurrean gaude. Valenziaga, Txoko, Sarasua... herriaren gogoia eta nahia zein zen igarri eta erraztasun handiko txirrin-
dulari proba antolatze gaitasuna izan duen taldea. Historikoki, Arrateko maldek txirrin-
dulariaren munduko izen garrantzitsuak ezagutu dituzte. Bahamontes-ek behin eta berriz errepikatu zuen, bost garaipen lortu arte. Baina ez berak bakarrik, Eibar eta inguruetako zaletuek Anquetil, Poulidor, Gaul, Bobet, Loroño, Ocaña, Julio Jimenez, Marino Lejarreta eta beste askoren lana miresteko aukera izan dute, maldak igotzeko erraztasuna aprobetxatuz Arratera hanka eginda iristeko gaitasuna izan duen jendea. Edozein modutan, aurtengoa zita berezia izango da. Arraten irabazi duten asko hemen izango dira, eta beraiekin txirrin-
dularitzaren urte berezi haiek gogoratuko ditugu, aldaketak medio, gaur egungo txirrin-
dularitzaren antz handirik ez duten urte haiek; nahiz eta oraindik txirrin-
du ganean aurrera egiteko ezinbestekoa izan pedalei eragitea. Arrateko guztion laguntza merezi du, edizio berezi hau behar bezala ospatzeko. Gure artean jende berezia izango da eta txirrin-
dularitzaren munduko onent-
suenak bertako errepideetan ibiliko dira, berez aurrera doan lasterketa batean parte hartuz. Arrate, munduko lasterketa onenen artean daukate guztiak, eta datei dagokionez ezin hobeto kokatuta dago, Tourra hasteko egun gutxi batzuk besterik gelditzen ez direnean. Eibarrek onena du, baina merezi duelako!

Tito Irazusta.

GERTU INPRIMATEGIA

- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Era guztietako inprimakiak

Zubillaga Industrialdea 9. OÑATI Tfnoa: (943) 78 33 09



Rostellan ta Anquetil 1964ko Arrateko igoeria ekiterakuan.



Poblet Ipuruako belodromuan jentia agurtzen, 1965an.



Postulaziñoko karabania 1965an.



Charli Gaul 1965ko kontrarelojaren urteerari.

Juanito Gisasola "Txoko"

"Zeozer eukiko jua karrera honek Anquetil lau urte errezkadan etortzeko"

Eibarko Ibarkurutzeko kalia jaixotako Juanito askotan ibilli da Untzagan, kioskua dauan lekuan, bizikleta gaiñian malabarismoak eitten. Baitta Hendaian irabazi ere, behiñ. Motorrian, bestalde, 21 urte egin ditu: Komisario lanetan jardun izan dau 9 bider Espaiñako Bueltan, 3 bider Frantziako Tourrean ta baitta Luxenburg ta Marokkon.

Amuategi Batalloian egondako gizon honek 31 urte emon ditu Arrateko Igoeria erutzen. Horretaz aparte, 5 urtetan zihar C.D.Eibar-ko lehendakarixa izan zan. Beste 5 Dianan, Ehiza ta Arrantza Elkartian. Estatu maillan ziklo-krosseko Batzordeko lehendakarixa ere izan zan 6 urtetan. Aurten jasoko daben omenaldixa, hainbeste denboran egindako lana eskertzeko modu bat besterik ez-ta.

Eratzaile moduan ekin zenetsanian, irabazliak 50 duro kobratzen zittuan. Zurekin 500 pezeta kobratzera pasatu zan. Zelan emon zan hori aldaketiori?

Leku guztixetan eskian, hasi taillaretik, ia ehun bisitatzen nittuan, tabernetatik jarraitu ta Coca-Cola enpresa be bai. Diputaziñuan be mundu guztixari tabarria emoten. Kontu eiñ publizidade etxiak diru gitxi jartzen zebela ta txirindularixak eruaten zeben propagandia oso merkia zala.

Nondik lortu eban karrieriak hainbesterako izena?

Bizittasuna emotia nahi izan netsan. Horretarako, Frantzian egiten ziran karrera bittan konturatu nitzan: Mont Farom eta Mont Agel, antzerako zeozer hāmen eitteko. Gero, batez be Bahamontes eta Loroñokin ta, jakina, bahamontisten eta loroñisten arteko pikiekien.

Jean Dotto ta Valentin Huot-ek atzerritarren bidia zabaldu zeben; ta Anquetil-ek jarraitu. Ez zan erreza hori ekartzia izango, ezta?

Anquetillen aurretik Louison Bobet-en bisittia izan genduan.


Horrek be hiru bider Tourra irabazitta zekanez, jentiak ez zeban siñisten ona etorriko zanik. Baina hamen egon zan.

Anquetillen kasuan, lelen-go managerrangana jo neban ta horrek 25 milla duro eskatu estazan. Gero txirindularian etxera jua ta berak 5 mila durotan laga eskun. Ondiokan

"Bahamontesek Kas-ian korrittu jua, nahiz ta askok siñistu ez"

be goguan dakat Galerias Preciados aurrian eiñ zeskun harrera. Detaille politta izan zeban gurekin karrera amaittu ta gero: ikusi zebanian zelan geniharduen batutako dirua kontatzen, 7 mila pezeta laga eskuzen "txanpaina erateko". Ordutik aurrera, federaziñuak fetxia emon, etxera deittu ta segiduan hartzen zeban konpromisua.

Kontratuetan alde haundixa euan?



Puruaz egin zan Juanito ospeduna. "¡Qué bien vive Juanito el del Txoko, cuando va con el puro en la moto!" kantatzen zetsen askotan.

Gaur egun be holan izaten da. Anquetil ta Gimondik 100 mila pezeta kobratu zeben, Poulidor, Bobet eta Janssen-ek 90, Gaul-ek 65 ta Aimar-ek 60. Bahamontes-ek 35 milla ta Loroñok 20. Gehixen kobratu zebana Ocaña izan zan, Tourra irabazi ostian: 125 milla pezeta. Kas taldiak 90

milla kobratzen zittuan, La Casera-k 75 ta Karpy-k 50 milla. Ez ahaztu guztira 26 edo 28 zirala parte hartzen zebenak, lelen-go maillakuak ta gonbittiakin kasu guztixetan

Egixa da 50 milla lagun batzen zirala karrera ikusteko?

Gatxa da zifra bat emotia. Baña karreterria moztu ta karrera ez zala aterako amenazua jo genduan behin.

Egunkari asko ta irrati guztixak etortzen ziran. NODOan ataraten zeben ta Marca, Dicen, L'Equipe ta Santander-ko Alertak orriñak ta orriñak kaleratzen zebelen.

Zeintzuk dira orduko ta gaurko karreren arteko desberdintasun nausixenak?

Le lengua, publizidadian indarra. Txirindularitzan, gañera, foballian baño indar gehixao dauka, telebisiñuak publizidadia enfokatzen dabelako. Lehen eskale moduan ibiltzen ziran askotan. Galerak esate baterako, bi milla pezeta eskatu zittuan ta gero irabazi. Dirua beti da edarra ta orduan gehixau. Bahamontes be hor ibilli zan Kas-en representantia moduan Toledon hillabete batzuetan ta nahizta jentiak jakin ez arren, proba batzuk korrittu zittuan maillot horixakin..

Janarixetan be alde haundi-xa dago. Zer esanik ez, medikuekin. Badakizu zer dan txirindulari batendako benetan kaltegarria? Biñagria, odola mehetu eitten dabelako.

Zelan jarraitzen dozu gaur egunian txirindularitzan?

Auto barruan joan ezkerio, beti sufritzen. "Horrek zer eitten dau, traban!" ta holakuak burutik kendu ezinik. Horregaittik nahixau dot ez joatia. Hogeï urte gutxiagokin motuan ibiliko nintzateke.

Normalian telebisiñotik jarraitzen dot. Baña Tele 5-n eitten dabena ezin da eiñ, kilometro bat falta dānian moztu. Zer da hori? Gero esaten detsuete: "Hanka eiñda joiak". Bai, baña noiz? Ni askotan Alemaniako telebisiñora pasatzen naiz holakuetan. ETBk, osterā, bihar dan moduan ematen dau. Ikusten da karreriarri beste zentzu bat hartzen detsala.

Euskadi Fundazioa, zaletasuna sponsor paperean


Fundazioko Karta eginda dago jadanik. Bertan, bere estatuto eta Arautegiak azaltzen dira, Gestora batek sinatuta. Eta urrats honekin, aurrera jotzeko gogoia erakutsi dute proiektua ateratzeko sortutako komisioko partaideak. Jaime Ugarte, Euskadiko Federazio-ko lehendakariak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lehendakariak eta txirrindularitza munduko beste zortzi lagunek osatuko dute Fundazioaren Direktiba. Idazkaria eta diruzaina ere izango dira Jose Alberto Pradera, Bizkai-ko diputatuak, aurkeztu zuen ideia-aren fase honetan.

Julian Eraso, Euskal Bizikletaren antolatzaile-atariko bat eta Komisioko partaide denak dioskunez “hamasei mila lagun apuntatu dira dagoeneko eta Sistemas Europeos de Comunicación enpresak Bizkaian burutu dituen inkestan arabera, bakarrik % 10ak egingo du atzera. Bost mila inkesta egin dira eta guztiak personalak”.

“Ez baditugu 250 milioi

Hamasei mila dira izena eman dutenak orain arte.

lortzen ezingo dugu aurrera egin” gaineratu digu. “Gauzak legalizatuz joan behar dira, gero jende-ari dirua eskatzeko. Hori bai, nahikoa ez bada ateratzen, diru hori bueltatu egingo da. Porrot egin dugula erre-konozitu eta kitto!”. Horregatik, zabalduko den kontu korronea blokeatu egin-



Euskadiren presentzia ez da arraroa txirrindularitzan.

go da, dirua sartu bai baina atera ezingo da egin.

Jendeak nahi badu, ekipo

Datorren urtean ekingo dio ekipoak bere errepideko bizitzari. Urte bukaerarako prestatu eta bideetara ateratzeko asmoak daude. Talde teknikoak osatu eta profesionalen ekipoa eratuko da, Athletic-aren bide-ari jarraituz. Txirrindulariak hemengoak edo hemen aritukoak izango dira: “Ez da elite-koa izango. Pare bat, hiru, lau profesional on fitxatuko dira, erdipurdika dabilzan beste hiru edo lau, gazteak hauek eta afizionatutik igoko diren beste batzuk egongo dira. Hasieran, beraz, ekipo apala izango da”, Erasoren eritziz.

Dena den, jendeak erantzuten duen araberako ekipoa izango da “Euskadi” izena paseatuko duen taldea. Hori da behintzat Fundazioaren filosofia. “Txirrindulari bat hemen formatu eta proiektatzen bada, askoz hobeto. Ateak zabalik edukiko ditu” dio Erasok.

Dozena erdi maillot prest

Euskadi Fundazioa taldetik pasatutako txirrindulari, mekaniko eta zuzendari- lagunduko die. “Fondo social” edo antzerako zerbituak sortuko da euren babeserako, edozer-

gauza dela eta horren beharra izaten badute. Kirola bultzatzea, batez ere afizionatu mailan, du Fundazioak helburu gisa eta Euskadiko Txirrindulari Elkarteak sortzeko asmoa ere.

Gutxienez 250 milioi pezeta behar dira zeozertan hasteko.

Erasoren esanetan, “enpresa asko ari dira gurekin lanean. Visa txartelarekin karneta ateratzeko ideia ere hor dago, bidaia agenteiak prest daude kolaboratzeko eta horrela beste asko”.

Maillotaz ere pentsatu dute eta dozena erdi proposamen jaso. Jakina, ikurriñaren hiru koloreak erabiliz. Gaurko diseinuak eta EUSKADI izenarekin konbinatuz.

Hemendik egun batzutura badirudi zenbait berri helduko zaigula. Ea onerako den!

Euskadi Fundazioa

Euskadi Fundazioak hainbat zeresan eman du azken hiru beteotan. Praderak botatutako asmoa gorputza hartzen joan da inork uste baino azkarrago eta ezeren okerrik ez bada tropel profesionalak talde berria izango du datorren urtean, 1994.ean. Aldeko jarraituen ondoan kontrakoak agertu dira; batek baino gehiago esan du Euskal Herriak arazo grabeagoak dauzkala eta esateko baldinok horretarako diru ematea astakeria bat litzatekeela.

Oraindik ere Fundazioaren arduradunek ez dute azaldu taldea nolakoa izango dugun zeintzuk osatuko duten, baina txirrindulariak, zuzendariak, masaje emaleak... Zaintza gaude.

Krisialdi ekonomikoak joan gaizki gauden sasoi honetan, euskal talde profesionalaren prentsa-larria ere ikusten dut. Praderak talde mastodontiko bat eratu aiatzen zuen, euskal txirrindulari onenekin, baina beste era bateko ekipo bat aldea aldea aldea, mundu horretan bai sartzeko eta bai aurreratu egiteko geroz eta arazo gehiago dauzkaten gazteei irten-idea emango dien talde berria. Filosofia berri batekin, egitura berri batekin, ohiko talde profesionalen alternatiba. Emaizak aurreragoko laguna eta harrobia, prestaketa teknikoak, zainketa medikua, eta teknikoak, txirrindularien beharretan, taketa-sistemak beste bide batera antolatuko dituen talde berria.

Hori ematen badigu, Fundazioaren alde nago, baina aurreratu behar dut gauza dextren ilun xamar ikusten ditutako oraindik.

Joseba Leizaola



Euskal Bizikleta

Bicicleta Vasca

93



ETB



ZU BEZALA,
KIROLZALEA

kutxa beti ere aurretik kirolari laguntzen



Gipuzkoako zaletu guztien alde.
Gure gazteen alde. Eta gure tradizioen
alde. **kutxa** beti ere gailen.
Gipuzkoar guztien alde.
Gurea den guztiaren alde, **kutxa** beti
ere laguntzaile. Laguntzaile jator.
Horregatik ospatuko dugu pozaren
pozez Arraterako igoeraren 50.
Urteurrena. Euskal Bizikletaren
arrakasta bat gehiago. Gipuzkoar
kirolaren beste arrakasta berri bat.
Gipuzkoaren alde: bihotz-bihotzean
daramagulako.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa

gipuzkoa: bihotz-bihotzean

SANTA ANA

Arruriagako elkartea

Santa Ana elkarteak 47 urte ingurukoa da. Diru kontutan sartuz, elkarte honetan urteko 500.000 pztako kaja batzen da jan eta edanarekin. Gainera, azken hilabetetan elkarte mugimenduak gorakadaxo bat egin duela aipatu digute bazkideek. Falta kontutan nahiko ondo dabilta batzbesteko %1arekin. 34 bazkide hauek sei hilabetero 7.000 pztako kuota ordaintzen dute.

Santa Anako ermitaren ondoan dagoenez, izen honekin bataiatu zuten elkarte. Elkarte ikurriña ere gorria eta urdina egin zuten, Santa Anako ama birjinaren mantoaren koloreak baitira. Ikurriña Artekaleko monjarrek oparitutakoa da.

Hasiera batean 35 bazkide ziren elkarte honetan, eta gaur egun 34 bazkide dira. Bazkide hauen artean oraindik ez dago elkarte jubilatuen denik, nagusienak 60 urte baino ez baititu. Santa Ana elkarteak 34 bazkide hauen adina batzbeste

47 urte ingurukoa da.

Diru kontutan sartuz, elkarte honetan urteko 500.000 pztako kaja batzen da jan eta edanarekin. Gainera, azken hilabetetan elkarte mugimenduak gorakadaxo bat egin duela aipatu digute bazkideek. Falta kontutan nahiko ondo dabilta batzbesteko %1arekin. 34 bazkide hauek sei hilabetero 7.000 pztako kuota ordaintzen dute.

Santa Ana elkarteak lehen auzoko jubilatuentzat bazkari bat gertatzen zuen, baina ohitura hori galdu egin omen da. Honetaz gain, Bergarako



Santa Ana elkarteak bazkide batzuk.

haurren egunean eta horrelakoak suertatzen direnean elkarteak bere laguntza ematen du.

Beraien ospakizunarako egun berezi hori ere badute Santa Ana elkarteak. Elkarte zabaldu zeneko egun berean, urriak 12an hain zuzen, elkarte bazkide guztiek

bazkari batekin ospatzen dute elkartearen urteurrena.

Sukaldari ugari omen dira Santa Ana elkartearen eta gutxi dira bazkideen artean sukaldean hala edo nola moldatzen ez direnak. Aipatzekotan honako hauen izenak eman dizkigute, baina gehiago ere badirela argituz: Antonio Aguila bere berakatz soparekin, Albino Fernandez "Iacón" izeneko jan galiziarrekin, Juan Hervás, Gutiérrez, Antonio Marqués eta Pedro Castro.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1978.eko urriak 12.

BAZKIDEAK: 34.

HELBIDEA: Arruriaga 11.

PRESIDENTEA: Antonio Sierra.

ELKARTEAREN EGUNA: Urriak 12

URTEKO KUOTA: 14.000 pzt.

Ainboa Lete

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



IPINTZAKO

NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

| | I Taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|----|------------------|------------------|-------|-------|-------|--------------|-------|----------------|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | A ZE FLAXA | 2 | 2 | 0 | 0 | 5 | 2 | 4 |
| 2. | OGIZUN | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 1 | 2 |
| 3. | AMOKIBAR | 2 | 0 | 0 | 2 | 2 | 6 | 0 |
| 4. | OS JARDINEIROS | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | 0 |
| 5. | PAOK DE SAN JUAN | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

EMAITZAK

- OGIZUN-AMOKIBAR.
- A ZE FLAXA-OS JARDINEIROS.
- AMOKIBAR- A ZE FLAXA.
- PAOK DE SAN JUAN-OGIZUN.

3-1
2-1
1-3
(Susp.)

HURRENGO PARTIDUAK

- A ZE FLAXA-PAOK DE SAN JUAN. Asteartea 20.30.
- OS JARDINEIROS-AMOKIBAR. Asteazkena 19.30.

| | II Taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|----|------------------|------------------|-------|-------|-------|--------------|-------|----------------|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | AMILOTX | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 0 | 2 |
| 2. | MONGATXURRA | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 2 | 2 |
| 3. | ARLOTEAK | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 3 | 0 |
| 4. | OSINTXU | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 3 | 0 |
| 5. | SHAKTALE | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

EMAITZAK

- AMILOTX-OSINTXU
- MONGATXURRA-ARLOTEAK

3-0
3-2

HURRENGO PARTIDUAK

- OSINTXU-MONGATXURRA. Ostirala 20.30.
- SHAKTALE-AMILOTX. Astelehena 19.30.
- MONGATXURRA-SHAKTALE. Asteazkena 20.30.
- ARLOTEAK-OSINTXU. Osteguna 19.30.

| | III Taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|----|-------------------|------------------|-------|-------|-------|--------------|-------|----------------|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | BILDURBAREK-LAM | 1 | 1 | 0 | 0 | 9 | 1 | 2 |
| 2. | PIKAPIEDRA | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 1 | 2 |
| 3. | EZINLEIKE | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 4 | 0 |
| 4. | NAHIKARI | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 9 | 0 |
| 5. | PIKAPIEDRA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

EMAITZAK

- PIKAPIEDRA-EZINLEIKE
- BILDURBAREK LAM-NAHIKARI

4-1
9-1

HURRENGO PARTIDUAK

- EZINLEIKE-BILDURBAREK LAM. Astelehena 20.30.
- ALTZASU-PIKAPIEDRA. Asteartea 19.30.
- BILDURBAREK LAM-ALTZASU. Osteguna 20.30.

Beteranoak

| | | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|----|-----------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|---------|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | A ZE FLAXA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 2. | PAO DE SAN JUAN | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 3. | AMOKIBAR | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |

EMAITZAK

• BETI ONA-TXIPIRON

2-0

HURRENGO PARTIDUAK

• OGIZUN-BETI ONA. Ostirala 19.30.



A ZE FLAXA




OS JARDINEIROS



AMILOTX

KOMENTARIOA



Jabi BURGOS

"Txapelketa hasi besterik ez da egin, baina konklusio batzuk atera ditzakegu. Alde batetik, jokatu diren 9 partiduetan ez da berdinketa bakar bat ere egon. Guztietan izan da garaile eta galtzaile bat. Bestalde, golak ikusteko aukera izan dugu eta alde horretatik pozik egoteko moduan gaude. Bildurbarek-LAM taldeak sartutako 9 golak azpimarratuko nituzke. Bestalde, ezin ahaztu Arloteak taldeko Joseba Larrañagak izandako zoritxarra: ukulondoa hautsi zuen sarrera gogor baten ondorioz. "

GOLEATZAILEAK

- 3 gol: • J.L. Etxaniz (Bildurbarek).
• Patxi Osa (Pikapiedra).
- 2 gol: • C. Rodriguez (Amilotx).
• Manu Diaz (Mongatxurra).
• M. Larrañaga (Arloteak).
• R. Agirrezabal (Bildurbarek).
• Josu Arana (Bildurbarek).
- Gol 1: • Loidi (A Ze Flaxa).
• M. Azkarate (Amilotx).
• J.L. Bolinaga (Nahikari).
• A. Narbaiza (Os Jardineiros).



PATXI OSA

FS
oto sistema

APPÉNI?

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

**Zer deritzezu
hauteskundeetako emaitzei?**



Jabier Ormaetxea
43 urte, langilea

Bastante txarrak, batez ere Euskadiko alderdietarako PSOEek eta PPK boto asko jaso bait dituzte.




Casimira Luarizaristi
70 urte, jubilatua

Ba ez nuen pentsatzen PSOEek irabaziko zuenik. Zer egingo diogu, ba? Laga egin behar...



Rosa Goñi
32 urte, langabetua


Ni pixkat apolitikoa naiz eta ez nuen beste gauzarik espero. Ez da sorpresarik egon.



Patxi Palomares
32 urte, langilea

Euskadiko emaitzak ez dut uste onak izan direnik. PPK, esate baterako, ez luke hainbeste boto jaso behar hemen.

MARKIEGI Automobilak




Leizeaga, 1
(San Lorenzo Pol. Ind.)
☎ 76 35 09



- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

ADI ORAIN:
I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)



Hauteskundeak eta Giroa

Domeka gauean, hauteskunde gauean, Euskal Telebistan, Xabier Arzalluz bipolarizazioaz ari zen berriro ere, Euskal Herrian PSE-EE eta PPK izan duten gorakadaren ardura komunikabideen gain jartzen zuen. Beste politiko batzuk ere antzerako analisia egiten zuten.

Domeka arratsaldean, zazpi zortzi bat ordu lehenago, Ondarruko Mariñela tabernan nengoen, Giroko etapa erregina ikusten. Pordoin gora Indurain napar haundia tiraka, Chiapucci atzeratxoago, erroberan. Tele 5ko komentaria batek, Osvaldo Menendezek uste dut, isilik egon ezin eta zera esaten du: "Chiapucci está desaprovechando su última oportunidad para atacar a Indurain". Tabernako andreak, besoak jasoaz, "ze egingo dau ba, segitzen nehikua lan dauka ta", dio. Nere aurrean jarrita dagoenak, "hori dok txotxolua", gehitzen du. Eta aurreratxoago sorbalda pareta kontrari daukanak: "Honek periodistok... Edozer gauza esan eta gainera kobrau itten dabe".

Bi pasarteekin zer esan nahi dudana? Ez dut nik ukatuko komunikabideek ikusle, entzule edo irakurleengan duten eragina, hauteskunde orokor hauetan bipolarizazioa egon dela, baina botoemailearen jarrera kritikoa errebindikatzen dut. Badaude, guztiarekin bat ez etorri arren, kiroletan entzundako, ikusitako eta irakurritako dena baloratzen dakitenak, eta politikan ere antzerakoa gertatzen da. Bata eta bestearen artean aukeratzen dakite, ez da artalde bat, obserbatzaileak ere badira, ez zenbaki hotz bat.

Joseba Lezeta



Akordatziakin bakarrik...!

(KLIK)

- Bai, bai, jakina, pentsioen igoera, eta osasun zerbitzuen hobekuntza nabarmena, eta lokalak gazteentzat eta baita zaharrentzat ere, eta... rockeroentzat ere bai.

- !!!???

- Noski, hori ere programan daukagu; hemen, 1769. orrialdean: "Lokal bana, insonorizatu". Izan ere, gaztetan batera jotzen nuen... Gainera, hemen daukat, beti daramat poltsikoan, je, je, orduko argazkia. Nolako melena eh?

- Bai, bueno, hori agian udal hauteskun (ZAP)

- ...milia bakoitzak bere etxebizitza! Eta ez diezagut (Jode, ederra ein juat frigorifiko berrixa erostiakin. Oin, pagatzeko, estu ta larri!) EZ, EZ, ETA MILA ALDIZ (ZAP)

- Bai, jaun-andreok, bai! langabez (izan be, soldatarena, la ostia dok, igo beharrean jaitsi, hi. Sinistia be! Eta gainera, huelgaren deskuentua, eta frigorifikua hor, sukaldian, berri-berrixa) (ZAP)

- Platanos de Espa (ZAP)

- ...sumisioaren aldeko borro (Sikiera Ixabel hemen balego, ba, eingo ginuke zeozer, larrutan ero; baina hemen bakarrik, kanpaia jotzen ez bajuat behintzat...) zito profesionala, gure gazte (Bueno, onena kalera juatia juat, aber Ixabel topatzen doten; eta frigorifikuana, ba, pentsauko juat bihar, erreflexio eguna dok eta).

(KLIK)

Oharra: Azkenean frigorifikua bueltatu egin behar izan neban, erreflexio egunean mozkortu egin nintzan eta.

Iñigo Barruso

ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia gabinetea. BERGARA)



KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (haur, gaztetxo eta helduentzako)

LOGOPEDIA-FONIATRIA

- AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA
- DISFONIAK. Birgaitze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, fonazio eta arnasketa kaltetuak.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak.

• DISLEXIAK

• TOTELTASUNAK

- AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenzefalikoaren ondorioak, burmuin zainen gaitzak, encefalitiak.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak

PSIKOMOTRIZITATEA

ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK PSIKOLOGIA KLINIKOA

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patioetik sarrera). ☎ 76 14 80.
Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

I
Z
O
Z
K
I
A
K



I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

MAHER Biltegiak L.E. Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

ETXALAR KRUASANTEGIA

Gosariak eta
meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



☐ Urrezko eztaiak

Anjelita Arizmendi eta Luis Alberdi bergararrek beren urrezko eztaiak ospatu zituzten asteartean, ekainak 8. Orain 50 urte ezkondu ziren Anjelita eta Luis eta ordutik 3 biloba eman dizkieten 3 seme-alaba izan dituzte. Asteartean guztiak bildu ziren lehenbizi Monja Zaharretan meza entzun eta ondoren majo bazkaltzeko. Zorionak Anjelita eta Luis!!



☐ Seminarioaren historia

Emilio de Felipe Donostiako Usandizaga Institutoko Fisika eta Kimika katedratiko eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kideak Los cien nombres del Real Seminario de Bergara izenburuko hitzaldia eman zuen ostiralean Kultur Etxean. De Felipek (argazkian) 1773-1876 urteen bitartean Seminarioak izan zituen etapa ezberdinak aztertu eta, izan dituen izen ezberdinak (Real Seminario de Nobles de Vergara, Seminario Científico Industrial edota Instituto General y Técnico de Guipuzcoa) eta horren zergatia azaldu zien bertan bildutakoel.



□ **Argazkilari onenak**

Larunbatean banatu ziren **Bergara Hiria IX. Lehiaketako** sariak Kultur Etxean. Argazkian saritutako argazkilariak, eskuratutako trofeoekin: **Felipe Loiola** (lehen saria koloretan eta bigarrena zuribeltzean), **Angel Perez** (bigarrena), **Agustin Gurrutxaga** (hirugarrena), **Benito Cantero** (herriko onena koloretan eta hirugarren saria zuribeltzean), **Julian Redondo** (lehen saria zuribeltzean), **Juan Tabares** (herriko onena koloretan) eta **Jose Luis Feo** (Bergara Berezia saria). Lan onenen erakusketa igandera ikus dezakezue Kultur Etxeko 2. pisuan.



□ **Txapeldunak**

Bergara K.E.ko infantil txiki futbol taldeak Deba Arroko Kopa Txapelketa irabazi zuen larunbatean, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian Eibarko Urki taldeari penalti jaurtiketetan irabaziz. Partidua huts eta huts amaitu zen baina **Jose Mari Aranburu** entrenatzailearen mutilak ez ziren larritu penalti puntuan eta 7 eta 6 irabazi zieten eibartarrei. Txapeldunak, txapeldunak, oe, oe, oe...


Zertan dihardute ba?

XABIER AZKARATE



33 urteko Kultur Etxeko kontserjea Filadelfiara (Estatu Batuak) joango zaigu datorren astean, astebetez, elkar-entzuketari buruzko ihardunaldi batzuetan parte hartzeko.

JOSE ANTONIO VALETA



Orain 53 urte Huescan jaio, Gasteizen bizi eta AZpeitian lan egiten duen saskibaloi-zale honek 3. mailako Bergara K.E.ko senior gizonetzkoen taldea zuzenduko du hurrengo denboraldian.

Mari Carmen
ARRAINDEGIA
Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak
Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

BILBAO
ASEGURUAK

IÑIGO JUARISTI
Artekale, 18 b
Tfnoa eta faxa: 76 08 71 BERGARA

Ura lagatzia erreza?

Plaentxiko mozkor bat, ardauz ple-ple eginda, jausi zan bein bati-an eta gitxigaitzik ixa burua apurtu zeban. Medikuak zauriak osatu ondoren esan zetsan lagun moduan:

- Baiña, gizona, zer ganora dok ori! Beti mozkortuta! Ganauak be naiko ur edaten dabenian, laga egiten juek, eta ik...

Orduan mozkorrak:

- Baita neuk pe ura!

Plaentxiar bat Seulko opinpiadetan


Plaentxiar bat juan ei zan olinpiadetan Seulera. Bere berezitasuna mailuka jaurtitzen zeguan. Eta bai bota be urriñ bere txanda eldu jakonian. Danak arritxuta ziran. Ain zuzen, urrezko medaillia irabazi zeban. Etorri da pozik benetan seleziño burua, eta zorion beruak emonaz, esatetsa:

- Zelan bota dok baiña aiñ urriñ mailukia?

Ta plaentxiarrak erantzun:

- Biarreko erremintxak, zenbat eta urriñago bota, obe!

Pedro Zelaia



Atzo, ekainak 10, igaro ziren 20 urte herri mailako xake biziko lehen jaialdia izan zenetik. Orduko argazkia duzue hau.

IÑAKI ZABALETAREN KANTALDIA MADRILEN

Madrilen euskal ikasle asko dago, eta lan dexente egiten dutela badakigu, elkar euskalduntzearen eta euskal girorik gal ez dakien ahaleginduz batipat.

Hoitako batek Madrilen bertan eratu den Iñaki Zabaletaren kanta saio baten berri ematen digu. Hona hemen haren gutuna:

"Joan den igandean, 'Colegio Mayor Cisneros' izeneko ikasle-etxean, Iñaki Zabaleta izan genuen. Madrilen geran euskotar multzo bati bere abestien azalmena egin zion.

Igaz, Bergarako seme eta Oiartzunen bizi dan Iñaki Zabaletak, Euskal Abeslari Berrien Txapelketa irabazi zuan. Aurten, emen soldauzka egiten daualarik, bere abeskera erakus zigun, erritik kanpo geranoi. Ogeiren bat abesti bota zuan Iñakik. Geienak lehendik ezagunak, eta beste batzuek." ZERUKO ARGIA (1973-VI-10).

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA:

Irakasle Eskola
☎ 943 / 71 41 57

MARGA

MODA san pedro, 22

SASOIKO
JANTZIAK

GERTALDI
BEREZIETARAKO
JANTZI
DOTOREAK



ekainak 14tik aurrera
% 25eko deskontuak

ZATOZI!
ZURE ZAIN GAITUZU!!




Zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

ANGEL GOMEZ

Bariantean, Santa Marina parean, Gasteiz-Ondarroa errepidean 45 kilometroa adierazten duen "Kilometroa" jarri berri dute. Bertan, eta horixe zen joan zen Galde Debaldeko erantzun zuzena Gasteizera 45 kilometro geratzen direla adierazten da.

ANGEL GOMEZek erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzako, ZUMELAGA JATETXEAk emandako saria. ZORIONAK !!
Eta besteok segi asmatzen! Animo!!


HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**


Matxiategi, 3. 76 12 22



Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



ANGEL GOMEZek jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAK emandako saria.



Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Zuhaitz eguna, Ingurugiroaren eguna, eta abar ospatzen dihardugu urterik urte, naturak gure bizi kalitatean duen garrantziaz jendearengan kezka sortu nahian. Izan ere egoera serioa da:

basoen desagertzearekin batera bertako arbolen ordezkariak landatzeak ere nahiko problema sortzen bait du. Euskal Herrian basoek betidanik eduki dute garrantzia eta, basoek ez ezik arbola bakarrek ere hainbat betekizun sozial eduki dute: muga egiteko, bilerak egiteko bere azpian, oroigarri izateko, gaixotasunen sendatze frogara,...

Bergaran ere badaude halako arbolak; famosoena, Olaso-Dorreko jardinean dagoen magnolioa. Gaur egun bere dotoreziagatik zuhaitz berezien patrimonioan badago ere bere garaian ezkontza baten oroigarri izan zedin landatu zen.

Zeinen gurasoak ezkondu zirenean landatu zuten Olaso-Dorreko magnolioa?



_____ izena

_____ abizena

_____ telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirarteke

LVI. San Antonio saria

Igandean, Bergarako Txirrindulari Elkartek eta San Antonioko Jai Batzordeak antolatuta, bigarren mailako afizionatuentzako txirrindulari saria jokatu da Bergaran. Irteera goizeko 10.15etan egingo da San Antoniotik eta amaiera eguerdi aldera izango dela espero da.

Batzarra

Ostiralean, ekainak 18, Bergara Kirol Elkarteko bazkideek beren urteroko batzar orokorra izango dute 19.30etan Kultur Etxean. Inñigo Zaitetik elkartearen gidaritza hartuko du batzar ostean.

Oregi II.a eta Oruesagasti Deba Arroko senior pelota txapeldunak

Oregi II.a eta Oruesagasti senior mailako pelota bikote bergararrak Deba Arroko finala irabazi zion Ubera-Barandiaran Elgetako bikoteari, 22 eta 21eko emaitzarekin larunbatean Elgoibarren.

Begararrek partidu ona egin zuten eta, ia partidu erdialdera arte markagailuan atzean izan ziren arren, azkenean 21 eta 19 aurreratu ziren. Elgetakoek berdintzea lortu zuten baina azken tantuaren sakean huts egin eta begararrek txapela lortu zuten. Oregik (txapelketako onena izendatua) eta Oruesagastik publikoaren laguntza ere izan zuten, begarar kuadrila batek partidu osoan zehar animatu bait zituen.

Bestalde, igandean Igor Gutierrezek 10 eta



Oruesagasti eta Oregi II.ak txapela jantzi zuten larunbatean Elgoibarren.

18 galdu zuten Elgetako 4 t'erdiko txapelketan. Iker Muruamendiarezek, berriz, 18-7 irabazi zuen eta gaur ostirala, gaueko 9 t'erdietan, Zumarragako Alarziaren aurka jokatu du.

Eta amaitzeko, igandean Elosuko beteranoentzako finalak jokatu

direla eguerdiko 12etatik aurrera: lehenbizi, txikitetan, Redondo bergararrak Aspiazu azkoitiarren aurka jokatu du eta ondoren Elosuko Muguza anaiak eta Elgetako Aranzeta anaiak aurrez aurre izango dira beteranoen bikote txapelduna nor den erabakitzeko.

Peskan onenak

Joseba Iribecampos nagusietan eta Zigor Urrutia gazteen mailan (16 urtera arte) izan ziren Oilagorria Ehiza eta Arrantza Elkartek igandean San Juan errekan antolatutako arrantza lehiaketako irabazleak. Guztira, 45 lagun (30 gazte eta 15 nagusi) aritu ziren peskan 8.30etatik 12.30etara eta, esan bezala, Joseba Iribecampos (8 amorrain, topea) nagusitu zen Jose Mari Urriategi (8) eta Xabi Lopezen (7) aurretik. Gazteetan, berriz, Zigoren (7) atzetik Daniel Fernandez (4) eta Unai Etxeberria (4) sailkatu ziren. Errekaratu ziren 310 amorrainetatik 103 hartu ziren.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



Infraoctaba-k

Garai batean eleiz-jai nagusi guztiek omen zuten beren bigarren ospakizuna eta hala zuen pasa berri den Korpus egunak ere. Korpus egunez egiten ziren prozesio eta ospakizunek hurrengo igandean izaten zuten errepikapena. Gaur egunean, Xabier Zubizarretak esan digunez, Gipuzko osoan, ziurrenik Elosun bakarrik ospatuko omen dira jaiok.

Argazkiari dagokionez, seguruena Barrenkalean ateratakoa izango omen da eta lurrean ikusten duzuen alfonbra modura herritarrek botatako ira eta belarrak dira. Familia bakoitzak bere etxe parean irak botatzeko ardura hartzen zuen eta horretarako baserrietatik erosi egiten ziren. Neskatiek ere lore eta anis belarrak eramaten zituzten bere saskitxoetan prozesioa pasatzean botatzeko.

Korpus eguneko prozesioak San Pedrori zegozkion kaleak pasatzen zituen bitartean «infraoctava»-koak Santa Marinari zegozkionak egiten zituen.

Goazen orain bertan bistaren agertzen direnak zeintzu diren azaltzera:

Lehenengo ilaran: Mila Zabala, Mari Jose Garitano, Mari Kontxi Garitano eta Itziar Barrutieta.

Bigarren ilaran: Arantxa Garaiz, Maribi Osoro, Arantza Askasibar eta Mari Kontxi Oregi.

Hirugarren ilaran: Angelita Garmendia, Milagros Gallastegi eta Elisa Ugarte.

Laugarrenetik atzera: Begoña Zezeaga, Begoña Igarza eta Maria Pilar Plazaola.

Atzean dauden abadeak, ezkerrean Don Jose Maria Azkarate eta Don Buenaventura Ariznabarreta eta eskumaldean ikusten direnak, aurrean Luis Belastegi, ezezagun bat eta atzean Ramon Azpeitia.

Estepan Plazaola

Argazkia: Elisa Ugarte

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



ETXEBIZITZA

Jacan udarako apartamentua alokatzen da. ☎ 76 43 98.

Pisu amueblatua alokatzen dut Zabalotegiko dorrean ☎ 76 33 93.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñatan. ☎ 76 57 69 / 76 13 23.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 42 10.

Pisua salgai Maduran: 3 logela, sukaldea, eta bainua ☎ 76 42 10.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Pisua salgai San Lorenzo 1ean. ☎ 76 27 35.

Garajea salgai Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

Eroski gainean 62 m karratuko pisua salgai. ☎ 72 00 66 / 81 23 17.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

DENETARIK

Master System II kontsola salgai. ☎ 76 03 31.

Citroen AX SS-AH salgai. Berritua. ☎ 78 33 09.

Renault Clio 16 V. SS-AM salgai. ☎ 76 25 91.

SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai. ☎ 76 50 67.

BMW serie 3 kotxea salgai. Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan Madrilerajoan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Jaietan urrezko pultsera bat galdu nuen. Aurkitu duenari eskertuko nioke nerekin harremanetan jarriko balitz. ☎ 73 05 43.

Datorren ikasturtean Donostiara joan etorria egunero egiteko autobusa bete nahian gabilta. ☎ 79 17 72 / 76 51 75.

Kitarra klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasiko integrala erosiko nuke. Merke bada hobea. ☎ 76 10 04.

Bi mahai eder salgai. Egurrezkoa bat eta kristalezkoa bestea. ☎ 76 35 56.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

4 metroko ADRIA karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauzez).

Haurren aulki bat (Silver Choss) saltzen dut eta kotxea (Arrue) oparitzen dut. ☎ 76 32 74.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

OPEL CORSA City, BIAK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

LANA

Bi lagunek propaganda etxez-etxe banatuko lukete. ☎ 76 39 86 (Iban).

Pertsona bat behar dut erderatik euskarara lanak itzultzeko. ☎ 76 03 74.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Esperientziadun neska batek haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

Hildakoak

Juan Moreno Blazquez
ekainak 28, 69 urte

OHARRA: Aurreko astean hildakoen artean agertutako Balentin Eguren Aurrekoetxearen lehen abizena gaizki jarri genuen.

Jaiotakoak

Aste honetan ez da jaiotakoren berririk jaso Bergarako Epaitegian.

ESKERTZA

Orain dela gutxi Bergaran hil zen Balentin Eguren Aurrekoetxearen familiartekoek une hartan samin agurra bidali zuten eta baita hileta elizkizunetara etorri ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

ETXAGI

Jatetxea


Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Masterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



UNITED COLORS
OF BENETTON.

SPRING / SUMMER COLLECTION 1993

ORAIN ERE ARRASATEN